

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4091

AGINDUA, 2023ko uztailaren 18koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita laguntzak emateko Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteei, hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteei (Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak alde batera utzita), hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasleen gurasoen elkarte-entitateen federazio eta konfederazioei, eta hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeen titulartasuna duten hezkuntza-kooperatibei.

EAEko hezkuntza-sistemarentzat ezinbestekoa da bertan sartuta dauden gizarteko sektore guztien parte-hartzea eta haien guztien laguntza, ezarrita dauzkan helburuak lortuko baditu. Hala, gurasoek edo legezko tutoreek eskubidea dute haurren eta nerabeen eskola-hezkuntzaren jarraipena egiteko eta hartan parte hartzeko.

Familiek zuzenean zein elkarte bidez aktiboki parte hartzeak hezkuntza-komunitatea indartzen du, eta, hezkuntza-komunitate horrek ikastetxeetako jardueretan zenbat eta inplikazio handiagoa izan, orduan eta indartsuagoa da hezkuntza-proiektua ere.

Alde horretatik, laguntza-deialdi honen helburua familien parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzea da, elkarteen bidez, jarduera osagarriak antola ditzaten. Logikoki, jarduera horiek ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekiko koherentzia izan behar dute, eta barnean prestakuntza-jarduerak izan beharko dituzte bai guraso eta tutoreentzat bai ikasleentzat beraientzat.

Hezkuntza Sailaren prestakuntza-estrategiaren ildotik, prestakuntza-jarduerak inklusioaren eta hezkidetzaren ikuspegia izango dute, eta hauetara bideratuko dira: ikasleen osasun emozionala eta bizikidetzaren positiboa hobetzera; jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan nahiz aisialdiko jardueretan euskararen erabilera sustatzera; hezkuntza-komunitateko pertsona guztien konpetentzia digitala hobetzera, eta eskola-komunitateko kide guztiak motibatuzera. Izan ere, ikasleen eskola-arrakasta eta arrakasta pertsonala lortzea da helburu komuna.

Lehenengo ekitaldian, laguntza horiek hiru deialditan banatzen ziren entitate hartzailearen arabera, baina denek zeukaten aurreko paragrafoetan adierazitako helburu komuna. Hala ere, agindu honek lehenengo deialdiak bateratzen ditu helburuaren arabera, entitate hartzailearen arabera izan beharrean. Horren ondorioz, agindu honek laguntzetarako deialdia egiten die helduen hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteei (HHE), hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteei (Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak alde batera utzita), hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasleen gurasoen elkarte-entitateen federazio eta konfederazioei, eta hezkuntza-kooperatibei.

Hezkuntzako sailburuaren 2023ko urtarrilaren 23ko Aginduaren bidez onartutako Hezkuntza Sailaren 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan sartzen da deialdia, eta Sailaren euskadi.eus webgunean argitaratzen da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Hori dela eta, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluan jasotako xedapenetan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren esparruan dirulaguntzak emateko moduari

buruzkoa– ezarritakoaren arabera, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako oinarritzko araudia betez –zeinaren bidez onesten baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua–, eta oro har aplikatu behar diren gainerako xedapenekin bat etorritik, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea eta helburua.

Agindu honen bidez, deialdia egiten da 4. artikuluan adierazi eta diruz lagundu daitezkeen jarduerak eragindako gastuak ordaintzeko laguntzak emateko. Jarduera horiek 3. artikuluan aipatzen diren entitate onuradunek egin behar dituzte, 2022ko abenduaren 3tik 2023ko abuztuaren 31ra bitartean.

2. artikulua.– Kreditu erabilgarria.

Helburu hori betetzeko, gehienez ere, 883.000 euro emango dira, hiru dirulaguntza-lerrotan banatuta, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kontura.

2.1.– 1. dirulaguntza-lerroa: 500.000 euro, 3. artikuluen a) eta b) apartatuetan adierazitako entitateentzat.

2.2.– 2. dirulaguntza-lerroa: 350.000 euro, 3. artikuluen c) eta d) apartatuetan adierazitako entitateentzat. Lurralde-eremu edo arlo hauen arabera banatuko da.

a) 70.000 euro, Euskal Autonomia Erkidegoaren mailako konfederazioentzat.

b) 170.000 euro, ikastetxe publikoetakoak diren elkarteak biltzen dituzten eta lurralde historiko batean diharduten federazioentzat.

c) 110.000 euro, irakaskuntzako elkarte-entitateen gainerako federazioentzat, elkarteak nahiz kooperatibak izan.

2.3.– 3. dirulaguntza-lerroa: 33.000 euro, 3. artikuluen e) apartatuan adierazitako entitateentzat.

3. artikulua.– Entitate onuradunak.

Deialdi honetan, entitate hauek parte hartu eta dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteak (HHE).

b) Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteak, Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikasleenak baino ez direnak izan ezik.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren mendekoak diren ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen elkarten federazioak eta konfederazioak, eta itunpeko ikastetxe pribatuetakoak, maila ez-unibertsitariokoak izan eta zuzenbidearen arabera eratu etakoak, baldin eta helburuak egokitzen batira indarreko legeetan xedatutakora, eta federazio edo konfederazio lege dagoen erregistroan sartuta badaude, betiere irakaskuntzakoak izanda eta ikasleen gurasoen osatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen gurasoen elkarteak arautzeko otsailaren 10eko 66/1987 Dekretuaren 6. eta 11. artikuluetan araututa dagoen bezala (1987ko apirilaren 7ko EHAA).

d) Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetako ikasleen gurasoen kooperatiben federazioak eta konfederazioak, zuzenbidearen arabera eratu diren maila ez-unibertsitarioetakoak,

baldin eta haien helburuek bat egiten badute indarreko legeek xedatutakoarekin, eta federazio edo konfederazio legeak dagokien erregistroan sartuta badaude.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko maila ez-unibertsitarioetako irakaskuntza-kooperatibak, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako zikloetako eta Batxilergoko hezkuntza-mailak ematen dituztenak, zuzenbidearen arabera eratuta badaude eta haien helburuek bat egiten badute indarreko legeek xedatutakoarekin, eta kooperatiben erregistroan izena emanda badaude hezkuntzako kalifikazioarekin.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

4.1.– Dirulaguntzarako jarduerak gutxienez alderdi hauetako bat betetzera bideratuko dira: ikasleen osasun emozionala hobetzea; bizikidetzaren positiboa; jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan nahiz aisialdiko jardueretan euskararen erabilera sustatzea; hezkuntza-komunitateko pertsona guztien kompetentzia digitala hobetzea, eta eskola-komunitateko kide guztiak motibatzea. Izan ere, ikasleen eskola-arrakasta eta arrakasta pertsonala lortzea da helburu komuna.

Halaber, deialdi honen xede diren jarduera guztiek inklusioaren eta hezkidetzaren ikuspegia izan beharko dute.

Inklusioaren eta hezkidetzaren ikuspegia honelakoa da: proposatzen diren ekintza guztietan kontuan hartuko da ikasleen eta familien arteko aniztasuna (generoa, kultura, hezkuntza-premia espezifikoak eta bereziak), bai eta familietan dagoena ere, eta behar diren neurriak hartuko dira pertsona guztiek ekintzetan parte hartzeko aukera izan dezaten.

4.2.– Agindu honetan adierazitako laguntzak gastu hauetan laguntzeko dirulaguntza emateko dira, 2. artikuluan aipatutako dirulaguntza-lerroak kontuan hartuta:

4.2.1.– 1. dirulaguntza-lerroa:

a) Prestakuntza-jardueren gastuetarako (ikastaroak, mintegiak, tailerrak, barnetegiak); antolaketa-gastuetarako (hizlariaren dietak –bidaiak, ostalua eta otorduak–; lokalen alokairua; prestakuntza-jarduerari lotutako materialak), hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako ikasleei eta ikasleen gurasoei zuzendutako jarduerak izanik. Jarduera horien kostuaren % 100 ordainduko da, gehienez ere.

a) apartatuko prestakuntza-jardueren gastuak izan beharko dute a), b) eta c) apartatuetan eskatutako kopuru osoaren % 50en parekoak edo hortik gorakoak.

b) Helduen Hezkuntzako ikasleen elkarteek (HHE) eta hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteek funtzionatzeko behar diren azpiegitura-gastuetarako (langileen nominak, hornidurak, alokairuak). Jarduera horien kostuaren % 100 ordainduko da, gehienez ere.

c) Hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako ikasleei eta elkarte-entitateetako gurasoei zuzendutako jarduera osagarrien gastuetarako (irteerak, txangoak, topaketak, hizlarien bidaia-gastuak, lokalen alokairua, eta jarduera osagarriari loturiko materialen erosketak). Jarduera horien kostuaren % 50 ordainduko da gehienez ere.

4.2.2.– 2. dirulaguntza-lerroa:

a) Maila ez-unibertsitarioko ikasleen gurasoei edo elkarte-entitateetako ikasleei zuzendutako prestakuntza- eta zabalkunde-jardueren gastuak (prestakuntza-jardueren kostua, hizlariaren dietak –otorduak eta bidaiak–, hala nola otorduak eta joan-etorriak, lokalen alokairua, prestakuntza-jarduerari lotutako materialen erosketak). Apartatu honetako gastuen kostuaren % 100 ordainduko da, gehienez ere.

a) apartatuko prestakuntza-jardueren gastuek izan beharko dute a), b) eta c) apartatuetan eskatutako kopuru osoaren % 50en parekoak edo hortik gorakoak.

b) Maila ez-unibertsitarioko ikasleen gurasoen elkarte-entitateen federazioen eta konfederazioen funtzionamendurako behar diren azpiegitura-gastuak, eta maila ez-unibertsitarioko ikasleen gurasoen elkarte-entitateei laguntzeko eta aholkularitza emateko gastuak (kontrataturako langileei ordaintzea, dietak –otorduak eta bidaiak–, argia, ura, berokuntza, telefonoa, lokalaren alokairua, argitalpenen harpidetza). Apartatu honetako gastuen kostuaren % 100 ordainduko da, gehienez ere.

c) Elkarte-entitateetako gurasoei zuzendutako jarduera osagarrien gastuetarako (irteerak, txangoak, topaketak, hizlarien bidaiak-gastuak, lokalen alokairua, eta jarduera osagarriari loturiko materialen erosketa). Jarduera horien kostuaren % 50 ordainduko da gehienez ere.

4.2.3.– 3. dirulaguntza-lerroa:

a) Hezkuntza ez-unibertsitarioetako ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibetako ikasleen gurasoei zuzendutako prestakuntza-jardueretarako. Gastu hauek izango dira: ikastaroak, mintegiak, tailerrak, konferentziak emateko eta haiek antolatzeko gastuak (hizlariaren dietak –bidaiak, ostatua edo otorduak–; lokalen alokairua prestakuntza-jarduerari loturiko materialen erosketa). Jarduera horien kostuaren % 100 ordainduko da, gehienez ere.

b) Hezkuntza ez-unibertsitarioetako ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibetako ikasleei zuzenduta dauden prestakuntza-jardueren gastuetarako. Gastu hauek izango dira: ikastaroak, mintegiak, tailerrak, konferentziak ematea eta haiek antolatzea (hizlariaren dietak –bidaiak, ostatua edo otorduak–; lokalen alokairua; prestakuntza-jarduerari loturiko materialen erosketa). Jarduera horien kostuaren % 100 ordainduko da, gehienez ere.

c) Hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibetako ikasleei zuzenduta dauden jarduera osagarrien gastuetarako (irteerak, txangoak, topaketak). Gastuak antolaketari dagozkionak izango dira (ostatua, bidaiak, dietak, lokalen alokairua, jarduera osagarriari loturiko materialen erosketa). Jarduera horien kostuaren % 50 ordainduko da gehienez ere.

5. artikulua.– Betekizunak eta haien egiaztapena.

1.– Dirulaguntza lortzeko, eskatzaileek eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) 3. artikuluan adierazitako entitateetako bat izatea. Egiaztapen hori ofizioz egingo da.

b) Entitate eskatzailea ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. puntuetan aurreikusitako egoeretan, dirulaguntzen onuradun izateari dagokionez, eta zehazki hau:

– Ez izatea dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko debekurik zigor- eta administrazio-arloan, eta ez izatea laguntzak jasotzeko legezko debekurik, ezta sexu-bereizkeriagatik debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatzen duen mar txoaren 3ko 1/2022 Legearen azken xedapenetako laugarrenean xedatutakoaren arabera.

– Egunean izatea indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzareki-koak, eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa.

c) EONALTBren 50.5 artikulua arabera, ezingo zaie laguntzarik edo dirulaguntzarik eman sexuan oinarrituta diskriminatzen duten jarduerari, ezta sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoei eta juridikoei ere, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte

osoan. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera segurtasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, eta, estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen bezala, sexu-jazarpenera edo sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzeko edo haien aurka egiteko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

Aipatutako betekizunak betetzea beharrezkoa izango da onuradun izateko eta izaera hori dirulaguntza likidatu arte mantentzeko.

2.– Agindu honen xede diren laguntzak emateko eskabideak aurkezteak berekin ekarriko du pertsona edo entitate eskatzaile titularrak baimena ematea organo kudeatzaileak automatikoki egiazta dezan ea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen diren. Hala ere, entitate eskatzaileak espresuki uko ahal izango dio baimena emateari; kasu horretan, behar diren egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

Entitate edo pertsona titular eskatzaileak eskabide-ereduarekin batera datorren erantzukizunpeko adierazpena sinatuko du, zeinaren bidez formalki deklaratu baitu bete egiten dituela betebeharrak eta hitzematen duela beteko dituela diruz lagundutako jarduerak dirauen bitartean:

a) Entitate eskatzailea inskribatuta dago EAEan dagokion elkarten erregistroan (agindu honen 3. artikuluko a), b), c) eta d) apartatuetan adierazitako entitateak baino ez badira).

b) Entitate eskatzailearen alta-egoera inskribatuta dago dagokion irakaskuntza-kooperatiben erregistroan (agindu honen 3. artikuluko e) apartatuetan adierazitako entitateak baino ez badira). Kooperatiba EAEko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta badago, ofizioz egiaztatuko da. Hala ez bada, kooperatibak berak eman beharko ditu egiaztagiria.

c) Entitate eskatzaileak ez du inolako zigor penalik ez administrazio-zigorrik, dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dionik.

d) Ez du dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik, batez ere sexu-diskriminazioagatik debekuak aipatuta.

e) Eskatzailea ez dago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntzak edo dirulaguntzak direla-eta hasitako ezein itzultze- edo zigor-prozeduratan.

f) Entitate eskatzailea ez dago Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan jasota dagoen eta onuradun izatea eragozten duen beste edozein egoeratan.

g) Egiazkoak dira eskabidean eta harekin batera aurkeztutako agirietan adierazitako datuak.

3.– Alta eginda dauka zuzen Eusko Jaurlaritzako Hirugarrenen Erregistroan (<https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>). Alta egiteko edo hirugarren interesdun gisa dauzkan datuak aldatzeko, hirugarrenen erregistro telematikora jo beharko da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren helbide honetaz baliatuta: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

6. artikulua.– Agiriak aurkeztea, epeak eta izapidetze elektronikoa.

1.– Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Eskabideak bitarteko elektronikoz aurkeztu beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/2023/12334/web01-tramite/eu>

Erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako eskabide-ereduak egoitza elektronikoko horretan bertan daude eskuragarri.

3.– Eskabidea aurkeztu ondorengo izapide guztiak ere egingo dira bitarteko elektronikoz –dokumentazioa zuzendu, espedientea berrikusi, eta prozedurako gainerako izapideak, deialdi-ebazpenaren aurkako gora jotzeko errekurtsioa barnean dela–, eta horretarako, helbide hau erabiliko da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.– Eskabideak eta gainerako dokumentuak euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira, aukeran. Halaber, prozeduran zehar, eskatzaileak hautatzen duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

5.– Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

6.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko onartutako identifikazio-bideak eta sinadura elektronikoa eskuragarri daude helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

7. artikulua.– Aurkeztu beharreko eskabideen eta gainerako agirien edukia.

1.– Entitate eskatzaileek «Eskabidea» izeneko inprimaki normalizatuak (I. eranskina) aurkeztu beharko dituzte, dagokien dirulaguntza-lerroaren arabera.

2.– Horretaz gain, pertsona edo entitate titular eskatzaile guztiek justifikatu beharko dute dirulaguntzako jarduera egin dutela eta diruz lagundu daitezkeen gastuak eraginkorrak direla; horretarako, hau eman beharko dute:

a) Memoria ekonomiko bat, 1. artikuluan ezarritako epean egindako jardueren kostuari buruzkoa (II.a eranskina, II.b eranskina edo II.c eranskina, diruz lagundu daitezkeen lerroaren arabera), entitate eskatzailearen ordezkariak data jarrita eta sinatuta, eta hauek jasota:

– Entitateak xede eta helburu berarekin deialdiko tartean gastuetarako izan dituen diru-sarreraren eta gastuetarako jaso dituen dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoak diren eta nondik datozen adierazita.

– Benetan egindako gastua, diruz lagundu daitezkeen jarduera motaren arabera behar bezala banakatuta. Era berean, fakturaren zenbakia, faktura egiteko arrazoi den jardueraren izenburua, haren zenbateko osoa eta diruz laguntzeko eskatzen den fakturaren zenbatekoa adierazi beharko dira.

b) Fakturak, ordainagiriak eta fakturen taulak (III.a eranskina, III.b eranskina edo III.c eranskina).

Fakturak eta ordaindu izanaren egiaztagiriak eman beharko dira eta egiaztatuta geratu beharko da erakunde eskatzaileak ordaindu dituela diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Era berean, aurkeztutako fakturak erakunde bakar bati jaulkiak izan beharko dira.

III. eranskinean (a, b edo c) faktura guztien zerrenda sartuko da, diruz lagundu daitezkeen jarduera-motaren arabera sailkatuta, eta honako hauek adieraziko dira: gastua eragiten duen prestakuntza-jardueraren edo jarduera osagarriaren izenburua, kasuaren arabera; faktura-zenbakia eta jaulkipen-data; gastuaren deskribapena; enpresa hartzekoduna (IFZ eta enpresaren sozietate-izena); zenbatekoa (BEZa barne), eta fakturaren abonu-data.

Langileen gastuak justifikatzeko, langileen kontratuen edo Gizarte Segurantzako alta-ziurtagi-rien kopiak erantsiko dira; bestela, langile horien lan-egoera normalizatua egiaztatzen duten agiri baliokideak.

Entitateak fakturen eta funtzionamendu- eta ekipamendu-gastuen jatorrizko egiaztagiria gorde beharko ditu legeak ezarritako epean. Ausaz hautatuta, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak eska diezaioke hartutako laguntzaren % 25 egiaztatzeko fakturak eta gainerako dokumentuak aurkez ditzala.

Pertsona edo entitate titular onuradunek jatorrizko egiaztagiria zaintzapean eduki beharko dituzte, eta Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak hala eskatzen badie eskura jarri beharko dizkiote.

c) Jarduerari buruzko memoria bat, gai hauek jasoko dituen, besteak beste:

– Egin diren jardueren azalpen laburra, honako hauek zehaztuta; batetik, zer neurri hartu diren inklusioaren eta hezkidetzaren ikuspegia bermatzeko; bestetik, nola bideratu diren jarduerak gutxienez alderdi hauetako bat betetzera: ikasleen osasun emozionala hobetzea; bizikidetzara positiboa; jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan nahiz aisialdiko jardueretan euskararen erabilera sustatzea; hezkuntza-komunitateko pertsona guztien kompetentzia digitala hobetzea, eta eskola-komunitateko kide guztiak motibatzea. Izan ere, ikasleen eskola-arrakasta eta arrakasta pertsonala lortzea da helburu komuna.

– Programatutako helburuak zenbateraino lortu diren azaltzen duen informazioa.

– Hobetzeko proposamenak, halakorik badago.

3.– Agindu honen 3. artikularen c) eta d) apartatuetan adierazitako entitateek IV. eranskina ere aurkeztu beharko dute (entitate federatuen eta konfederatuen zerrenda eguneratua).

4.– Ordezkaritza.

Ordezkaritza beste pertsona bati eman ahal izango zaio, haren izenean jardun dezan bitarteko elektronikoen bidez, agindu honi dagozkion prozedura guztietan:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko ahalordetzeen erregistro elektronikoen bitartez (<https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>)

b) entitatearen legezko ordezkaria izanez gero, eskabidearekin batera, ordezkari horren egiaztagiria aurkeztuta.

c) gainerako kasuetan, eskabidearekin batera, legezko ordezkari emateko inprimaki normalizatua behar bezala beteta eta erantsita (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eska-bidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>), legezko ordezkariaren ordezkariaren egiaztagiriarekin batera.

5.– Eskatzailearen nortasun telematikoaren egiaztatzea:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa daude esku-ragarri identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

8. artikulua.– Eskabidea eta dokumentazioa zuzentzea.

1.– Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak ikusten badu aurkeztutako dokumentazioa ez dela osorik bete, edo ez direla nahitaezko agiri guztiak aurkeztu, entitate interesdunari eskatuko zaio

hamar egun balioduneko epean falta zuzen dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala. Epe horretan eskabidea zuzendu ez bada, ulertuko da eskabidea bertan behera utzi dela.

2.– Jakinarazpena egintzat joko da interesdunak jakinarazpena jaso izanaren agiria elektronikoki sinatzen duenean.

3.– Jakinarazpen elektronikoa Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta» apartatuan kontsultatu beharko da. Jakinarazpena bidali eta interesduna hamar egun naturaleko epean ez bada edukira sartu, jakinarazpena baztertutzat hartuko da, eta izapidea gauzaturat. Prozedurak aurrera egingo du, salbu eta ofizioz edo hartzaileak eskatuta egiaztatzen bada teknikoki edo materialki ezinezkoa dela sartzeara.

4.– Aurreko hori eragotzi gabe, organo kudeatzaileak interesdunei jakinarazpenen abisuak bidali ahal izango dizkie; horretarako, SMSak edo mezu elektronikoak igorriko dizkie eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpen eginaren ondorioz izango.

9. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko: ikastetxeen eta plangintzaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak.

– Arduraduna: Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

– Helburua: ikastetxeen eta plangintzaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak.

– Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat bete-zeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

– Hartzaileak: Autonomia-erkidegoko beste organo batzuk, Ekonomia eta Ogasun Saila.

– Eskubideak: eskatzaileek eskubidea dute datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

– Informazio gehigarria: eskatzaileek gure web-orrian kontsulta dezakete datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/045400-cap2-eu.shtml

– Araudia:

a) Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES)

b) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)

10. artikulua.– Dirulaguntzak kudeatzeko organoa.

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak kudeatuko ditu deialdi honetan xedatutako laguntzak.

11. artikulua.– Laguntzen kuantifikazio-prozedura.

1.– Laguntzen banakako zenbatekoa zehazteko, artikulua honetan ezarritako banaketa-sistema aplikatuko da. Zenbateko hori ez da inola ere izango entitate horietako bakoitzak eskatutako zenbatekoa baino handiagoa. Halaber, 3. artikuluan adierazita dauden eta diruz lagundu daitezkeen jardueretarako mugak errespetatu behar dira.

2.– Banatzeko sisteman, 2. artikuluan adierazitako dirulaguntza-lerroak hartuko dira kontuan:

2.1.– 1. dirulaguntza-lerroa.

a) 200 euroko hasierako laguntza bat esleituko zaie onartutako eskabide guztiei.

b) Gero, elkarte bakoitzari bi puntuazio hauen batura esleituko zaio:

I) Zentroari dauzkan ikasleen kopuruagatik dagokion puntuazioa. Elkarte bakoitzari duen ikasle-kopuruaren arabera puntuak emango zaizkio, eskabidea aurkezteko epea bukatzen denean dagoen dokumentazio estatistiko ofizialari jarraikiz. Ikastetxe berean eskabide bat baino gehiago aurkezten bada, entitate eskatzaile bakoitzak eskabidean adierazten duen ikasle-ehuneko hartuko da kontuan. Halaber, ikasleen gurasoen elkarte batek aitorten ofizialeko bi zentrotan badihardu, bi eskabide egingo ditu; zentro bakoitzeko bat.

II) Eskabidea aurkezteko epea bukatzen denean dagoen dokumentazio estatistiko ofizialaren arabera zentroak daukan ikasle bekadunen kopurua 3rekin biderkatuz ateratzen den puntuazioa. Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako elkarteen kasuan, aurreko puntuazioa 2rekin biderkatuko da berriro, eta, ikastetxeak Eraldatzen programan parte hartzen badu (2022-2023ko ikasturtean), berriro ere bider 2.

Zentro bati ez zaio inola ere emango bi puntuazioen batura baino puntuazio altuagorik.

c) Dirulaguntza-lerro honetako zenbatekoari (500.000 euro) hasierako laguntzen zenbatekoa kenduko zaio. Kenketa horren emaitza izango da banatu beharreko soberakina.

Banatu beharreko soberakin hori elkarte guztiei emandako puntu guztien baturarekin zatituko da, eta faktore konstantea izango den zatiketa horren emaitzarekin biderkatuko da elkarte bakoitzari esleitutako puntuazioa.

d) Lortutako zenbatekoari hasierako 200 euroko laguntza gehituko zaio, elkarte bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa zehazteko.

2.2.– 2. dirulaguntza-lerroa.

a) EAEren eremuko konfederazioak.

Konfederazio bakoitzari emandako puntuazioarekiko proportzionaltasuna izango du banaketak.

Sare publikoko konfederazioei bi puntu emango zaie EAEren eremuan konfederazio horiei atxikitako sare publikoko federazioetako ikasle ez-unibertsitario bakoitzeko.

Gainerako konfederazioei puntu bat emango zaie federazio horiei atxikitako federazioetako ikasle ez-unibertsitario bakoitzeko.

b) Lurralde historikoaren eremukoak diren eta ikastetxe publikoetako elkarte-entitateak biltzen dituzten federazioak:

37.800 euroko hasierako laguntza bat emango zaie onartutako eskabide guztiei.

Gero, federazio bakoitzari puntu bat emango zaio federazioari atxikitako elkarte-entitateetako ikasle ez-unibertsitario bakoitzeko. Banatu beharreko soberakin hori apartatu honetako federazio guztiei emandako puntu guztien baturarekin zatituko da, eta faktore konstantea izango den zatiketa horren emaitzarekin biderkatuko da lortutako puntuazioa.

c) Gainerako federazioak:

Apartatu honetarako gordetako kredituen kargura, hasierako laguntza hauek emango dira:

– 5 elkarte-entitatek edo gutxiagok osatutako federazioak: 1.350 euro.

– 6 elkarte-entitatek edo gehiagok osatutako federazioak: 2.700 euro.

– 40 ikasle baino gutxiagoko matrikula duten eskola txikietako elkarte-entitateen federazioak, 14 entitate edo gehiago biltzen badituzte, betiere: 6.300 euro.

Gero, federazio bakoitzari puntu bat emango zaio federazioari atxikitako elkarte-entitateetako ikasle ez-unibertsitario bakoitzeko. Banatu beharreko soberakin hori apartatu honetako federazio guztiei emandako puntu guztien baturarekin zatituko da, eta faktore konstantea izango den zati-keta horren emaitzarekin biderkatuko da lortutako puntuazioa.

d) Federazio batean baino gehiagotan dauden guraso-elkarteen ikasleak federazioen artean hainbanatuko dira. Ikasle-kopurua ezin bada zatitu elkarte partaide den federazio-kopuruaz, kontuan hartuko da guraso-elkarteko ikasleen kopurua zati partaide den federazio-kopurua eragiketaren zatiduraren zati osoa.

e) Ikasleen zenbaketatik kanpo geratzen dira nahitaezkoak ez diren 0 eta 3 urte bitarteko irakaskuntza-mailakoak.

f) 2.2 artikuluan kontsignatutako zenbatekoekin zerikusia duten gastuek lotura zuzena izan beharko dute antolatutako jarduerekin edo entitatearen beraren antolaketako eta funtzionamenduko ohiko gastuekin.

2.3.– 3. dirulaguntza-lerroa.

a) 200 euroko hasierako laguntza bat esleituko zaie onartutako eskabide guztiei.

b) Gero, kooperatiba bakoitzari bi puntuazio hauen batura esleituko zaio:

I) Zentroari dauzkan ikasleen kopuruarengatik dagokion puntuazioa. Puntu bat emango da ikasle bakoitzeko. Ikastetxe berean eskabide bat baino gehiago aurkezten bada, entitate eskaizaille bakoitzak eskabidean adierazten duen ikasle-ehunekoa hartuko da kontuan.

II) Zentroak daukan ikasle bekadunen kopurua hirurekin biderkatzetik ateratzen den puntuazioa.

Kooperatiba bakoitzari esleitutako ikasleen eta ikasle bekadunen kopurua eskabidea aurkezteko epea amaitzean dokumentazio estatistiko ofizialean jasotakoa izango da.

c) Dirulaguntza-lerro honetako zenbatekoari (33.000 euro) hasierako laguntzen zenbatekoa kenduko zaio. Kenketa horren emaitza izango da banatu beharreko soberakina.

Banatu beharreko soberakin hori kooperatiba guztiei emandako puntu guztien baturarekin zatituko da, eta faktore konstante horrekin biderkatuko da kooperatiba bakoitzari esleitutako puntuazioa.

d) Lortutako zenbatekoari hasieran emandako 200 euroko laguntza gehituko zaio, kooperatiba bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren guttizko zenbatekoa zehazteko.

12. artikulua.– Ebaluazio-batzordea.

Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak batzorde bat izendatuko du, laguntzak esleitzeko proposamena egiteko. Hauek osatuko dute batzordea:

a) Ikastetxeen eta Batxilergoaren Plangintza Zerbitzuaren ordezkari bat, zeina batzordeburua izango baita.

b) Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako Hezkuntza Berriztatzea lurralde-burutza bakoitzeko ordezkari bana.

c) Ikastetxeen eta Batxilergoaren Plangintza Zerbitzuaren ordezkari bat, zeina idazkaria izango baita.

EONALTBren 49.2 artikulua araberan, Ebaluazio Batzordea osatuko duten pertsonen izen-abizenak EHAAren argitaratuko dira, ebaluazio-lanak hasi aurretik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan jasotako abstentzio- eta errefusatze-eskubideak baliatzen direla bermatzeko.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak ebatziko du deialdi honetan dirulaguntza-lerro bakoitzerako xedatutako laguntzak emateko prozedura, sei hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Entitate onuradun bakoitzari emandako laguntzen zenbatekoa adieraziko da edo, hala badagokio, ukatzeko arrazoiak.

2.– Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da ebazpena (<https://www.euskadi.eus/iragarki-aula-elektronikoa/>), eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu jakinarazpen-ondorioak.

3.– Aurreko hori eragotzi gabe, organo kudeatzaileak interesdunei jakinarazpenen abisuak bidali ahal izango dizkie; horretarako, SMSak edo mezu elektronikoak igorriko dizkie eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpen eginarean ondorioz izango.

Agindu honen babesean emandako laguntzen onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

4.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan xedatuarekin bat etorriz.

5.– Artikulu honen lehenengo apartatuan aipatutako epea igarota, ebazpena onuradunei jakinarazten ez bazaie, dagokion eskabidea ezetsi egin dela uler dezakete onuradunek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren ondorioetarako.

14. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Agindu honen babesean emandako dirulaguntzak honela ordainduko dira:

Emandako dirulaguntza osoa aldi bakar batean ordainduko da 15. artikulua 3. apartatuan adierazitako epean, baldin eta onuradunak espresuki dirulaguntzari uko egiten ez badio.

2.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, entitate onuradunak Eusko Jaurlaritzaren Hirugarrenen Erregistroan agertu beharko du. Alta egiteko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzan emandako hirugarrenen erregistro elektronikora jo beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

15. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako laguntzak jasotzen dituzten entitate onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte beti:

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan adierazitakoak, barnean hartuta finantzaketa publikoa dela jakinarazteko publizitate egokia emateko neurriak ere, dirulaguntzei buruzko lege horren 18. artikuluen 3. eta 4. apartatuekin bat etorritik.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan adierazitakoak –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori–.

a) Jarduera gauzatzea edo dirulaguntza emateko oinarritzat hartzen den egoeran egotea.

b) Laguntza eman duen entitateari justifikatzea baldintza eta eskakizunak betetzen dituztela, bai eta, halaber, laguntza eman eta jasotzeko zioa izan den jarduera egin dutela ere.

c) Dirulaguntza ematen duen administrazioak egiaztatzeke egiten dituen jarduketak egiteko laguntza ematea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol-jarduketarako ere.

d) Beste edozein administrazio, ente publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea dirulaguntza eman duen entitateari.

e) Laguntza ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera objektiboa edo subjektiboa aldatu bada, horren berri ematea laguntza eman duen entitateari.

3.– Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretatik, jakinarazpenaren osteko hamabost eguneko epean ez bada berariaz eta idatziz uko egiten, dirulaguntza onartu egin dela ulertuko da.

4.– Diruz lagundutako jardueren ondoriozko arriskuez arduratzea eta arrisku horiek estaltzeko aseguru egitea.

16. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honen bidez araututako laguntza bateratu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren bidez edo beste edozein administrazio publiko edo entitate pribatutatik lortutakoekin, baldin eta guztien baturak ez badu gainditzen dirulaguntza honen xede den gastuaren % 100. Hala bada, gaindikinari dagokion kopurua kenduko zaio deialdi honen arabera dagokien dirulaguntzari.

17. artikulua.– Dirulaguntza emateko baldintzak aldatzea.

